

IRABAZI ITURRIAK

Gure ideia webgune bat sortzea denez, gure irabaziak hainbat iturrietatik lortu genitzake. Esaterako, inguruko herri desberdinetako liburu eta paper dendak patrozinatuko ditugu gure webgunearen bidez, eta beraiek gu patrozinatuko gaituzte dendetan iragarkiak jarriaz, gazteek ikus ditzaten. Gainera, webgunearen barnean bideo azalpenen atal bat egongo da eta hori erabili ahal izateko erabiltzaileak harpidetu egin beharko dira.

Esandakoarekin ondorioztatu dugu gure prezio mota dinamikoa dela, negozio eta tratuak direlako eta denborarekin denda kopurua alda daitekeelako. Hasteko harremanetan jarriko ginateke inguruko negozioekin prezio bat adosteko. Horren harira, prezioa finkatuko litzake, bi aldeak adostasun batera iritsiaz. Ondoren promozio hori aplikazioan zehar egingo genuke. Hau da, erabiltzailea plataforman dabilela denda hauetako iragarkiak agertuko litzazkioke.

Horrela, apunteak egiteko behar duten materiala zein dendetan aurkitu dezaketen ondorioztatuko dute. Honekin, bai iragarkietako dendak baita gu ere irabazten aterako ginateke; guk dendek bitartez dirua irabaziko genuelako eta hauek berriz gure webguneko erabiltzaileen kontsumoarengatik.

Beste alde batetik, webguneak hainbat atal izango ditu eta hauetako batek (bideozko azalpenenak) prezio finkoa izango du, hau da, ordaindu egin beharko da bertako edukia eskuragarri izateko. Hau, harpideen bidez kudeatuko dugu. Hala ere, plataforma erabiliko duten guztiek ez dute ordaindu beharko, atal hau eskuratu nahi dutenek soilik ordaindu beharko dute. Ordainketa hau hilabetero egin beharko litzake, horrela lortuko genuke prezio finkoa.